

Praga ta Belfast: Indarrik - ezaren koska

Paulo VI'garrenak oraintsu esan berri du, Irlanda'ko gertaerak aiatuaz. Debekatua da kristaurentzat, zuzenbidea iristeko indarkeribidea artea. Au da oiñarri garbia, Ebanjelio-turritik jasoa. Oiñarri au egiñean gordetzea, ala ere, askoz zailagoa da.

Indarraren etsai danak, eragillea, bizia izan nai du, ez illa. Bere jarduna asi aurrez, bere baitan ausartzen du egitekoa. Artan zailtzen da. Ba daki zer nai duan. Bere asmoa garbi adieratzen du. Asarre-itza jasotzen du. Zuzengabekeriari ukoa erakusten dio. Indarkeria ez beste bide guztiak urratu nai ditu, aldaketa bearrezkoak iristeko; egoera onar-ezina etetzeko.

Lan orretan, ezta bakarra izaten onelakoa, ta sarri itza atera orduko indarkeria bere arnaka jaikitzen da. Gauzak diran-diranean ikusi bere ditugu, indar-jabe dana, sarri, zuzentasun- ezaren sortailde da. Orren kontra dator indarkeri- ezta maite duana. Baiña indar-jabe okerrak, ezta bere ekina koloka jartzerik nai. Orregatik, zapalketa orren arnaka jaikitzen dan indarkeriaren etsaia, bereala xil-araztoko osz da lotsarik. Ta orduan sortzen da gizartean odolahurtzea. Au onela gerta ohi dela, ezagutzen ez degun bitartean, gaurko elkartetan jaikitzen dan indarkeriaren iturri-muina ezin igarri dezakegu.

Gogoan dezagun Gandhi; gogoan, Martin Luther King; biak erailiak, Indarkeri- ezaren zale diranak eta gañera eragilleak, espirituz biziak datozean, zuzenbidea gordetzen dutenean, gizarteko ezagunen esnatzaile gertatzen dira. Indarkeri- ezta, ez da gizonaren bizi-aidoa. Oso zaila baiziki. Ori ager-arazten digute Irlanda'ko ta Txekoslovakia'ko gertaerak. Ta aien antzera dabilte beste alderdi batuetan ere.

Zuzengabekeriako egoera jabe egiña ikusita, Irlanda'ko Elkartasuna sortu zuten, eskubide berdiñak iristeko guzientzat. Bere «paketsuzko aidea» aitortu zuan elkarte onek. Artan jokatuko asmo erabakia zuten paketsu. Baiña protestanteak Belfast'eko ur-bideak ondatu zituzten, katolikuen kontra jaikitzeo aitzaki-billa. Irlandaren suak sortu zuan xinparta. Gaur, indarkei- ezaren zaleak galduta dute bere eskuetan zuten jokoa. Praga'n beste orrenbeste gertatu da. Txekotarrak paketsu jokatu zuten, zuzengabekeri- ezaren lotsagarrikeria kendu natrik. «Indarkeri-gabea aitzortzen du bere burua. Baiña aindora nora-ezik djoian bala bat naikoa da, illak eta zaurituak ugaltzeko.

Praga'n orobat, Erria paketsu atera zan kalera. Zuzengabekeriari ezetz esatera zetozen. Indarkeri- ezta onartzen du bere jokara. Baiña an ditu gañeñan erusarrit eta atuen lagunak.

Oso nekez degu gizonak, pakean bizitze ori. Ala ere, alegindu egin bearko degu orretan. Agintetudun zakarkeriari, Paulo VI'garrenak aiatutako indarkeri- ezaz erantzun bear zaio. Oñek berea du onelakoetan balio osoa.

Isilduko ahal gera?

Praga'tik datozen berriak ez dira pozgarriak: egunetik egunera herri baten zanpaketa ikusten ari gerra. Baina datozen berri horiek alderdi on bat ba dute: argitsuak dira. Alegia: argitu egin dezateke; argituak izan nahi dutenak argi ditzaizteke, hobeki esateko.

Aspaldiko esatera da halere, ez dagoela gor gorrarik aitu nahi ez duena baino. Eta gure arteko «fededun» berri batzuk ez dute entzun nahi. Areago: Txekoslovakia'z ezer ez esatea onena, uste baitute. Edo, ezer esatekotan, noski, Dubcek'en eskubidera salatzeko!

Horreraino eraman gaitu urteetan barrena argi eta garbi egiña ezin jakiteak!

Stalin orain dala 16 urte hil zan, ez atzo; baiña stalinismoa ez da hil, eta ez gutxiagorik ere. Eta gertaerak hozki aitzertzen baldin badira, komunismoa eta stalinismoa gauza berbera dirala dirudi. Praga'n ikusten dugu azken argibide nabarmena.

Hots, stalinismotik sozialismora tarte haundia dago: Inkisiziotik kristautasunera dagoen tarte berbera. Cernik eta Svoboda ikusten ditugu orain Smrkovsky eta Dubcek'en kontra, PRSS'en morroin bihurturik. Bostehun mila soldaduren fruitua, heldua da, beraz: kostata, hau bai, baina gaur 1968-ko laukotea aputurta dago. Borexnef pozik egon ditek: etsai bildurgarria izan zan taldea puskatuta dago, eta lardazkatzen hasia; Husak traidoresari domiña bat jartzeko garaia da! Jokabide berbera erabiltzen zuten Stalin'ek: desegin egin behar zutenak, alkarrreiko etsaitu aurrenik, eta beren artean zinkinarazte geror: horra hor bere bide zientifikoa... Zaitu ondoren, koldarrenak eta «realestenak» erosi; eta hauen bidez gogorenak hondatu, xehatu eta funditu. Hau eginenez borrorro berriak lepotik helduak gelditzen dira (Cernik eta Svoboda bezela), eta «jaka-itzulitako» ikusirik, aipamenik gabe. Prentsaren eta irriarrien kontrola, noski, nahi-ta-ezko baldintza zientifikoa da «egia» ager dedin...

Hau esatea anti-kobunismoa omen da. Eta nik hau diot: Praga'ko tragedia salatzeko antikobunismoa baldin bada, ni antikobunista naiz.

Mosku'k eman dituen «azalpenak» gezur hutsa dirala, eta gezurraren tekniko horiek fazismo hutsa dirala esatea anti-kobunismoa baldin bada, ni antikobunista naiz. Txekiarren eta eslabokiaren ezintasun osoa eta URSS'en inperialismoa for-dina aipatzea anti-kobunismo baldin bada, ni berriz ere antikobunista naiz. Eta Askatasuna zapaltzen duen sasi-sozialismoa, oinarritzat dituen liburuko nolana-hikoak diralarik ere, sozialismoaren etsaia dala esatea anti-kobunismo baldin bada, ni antikobunista naiz osoki. Marxista-leninistek lotsatu behar dute, eta ez guk. Zeren-eta sozialismoa gizona areago askatzeko sistema bat baita, eta ez areago zapalzeko. Eta Txekoslovakia'n herria zapaldu ta dago: gero eta zapadua go «ortodoxoak» desordenu hura «ta-jutzen» hasi ziran ezkerotzik. Herriak «Gora Dubcek» oihukatu du kaleetan. Zergatik?

Erazago da, noski, gaurko «turkoak» bilatzea: Mendebaldeko Alemania, kanpotik datorren errebisio-nismoa, atzerriko prentsaren burgeskeria, eta abar. Egoki zion Escarpit'ek: horrela segitzekotan Marten'ni bilatu beharko dituztela politika-poliziek gure mundu zoriotsu eta tajutsu hau nahastean dutenak...

Viet Nam'go gertaerak latsagarriak dira. Kapitalismoaren kondaira beltza da. Eta abar. Ez dugu dudarik egiten.

Baina orain dala urtebete Txekoslovakia'n gertatzen ari dana lotsagarria da. Ere lotsagarriagoa sozialismoaren izenean gertatzen baita. Torquemada lotsagarriago zaila kristautu bati, Jainkagabe bati baino. Gisa da.

Eglañen bildur diranak fanatikoak dira. Ez gaitzen gu horietakoak izan.

Azter ditagun jatorri Praga'ko gertaerak; eta zer gerta ere, izan dezagun egiña aitzortzeko kemena.

Nahiz, batzutan, izpiritu-erosokeria kalteturik aterako bada ere; mundua ez balitego zuri eta beltz zaiturik. Xinplekeria horiek haur-errentzako eta fanatikoentzako ongi dira.

Ez, arren, guretzako.

LARRSORO

MARTIN DE GUETARIA

Aita Pio Sagües Azcona, prantziskotar istorizale ospatsua ater du oso gutxi ezagutzen zan Martin de Guetaria obispoaren kondaira.

Martin de Guetaria izan zala bañko asko geiago ez genekien. Fausto Arozana jakintsuak amabost-garren menpeko gizona eta Konstanza-ko konzilioan izandu zala, dio bere «Diccionario biográfico vasco» meritu aundiko liburuan.

Bañan jor zan egitan Martin de Guetaria pamatua? Guztiki dakite karlisten lenengo gerran Getari-ko erria zearo kixkaldue egin zala. Gerrak benetan izan dira guretzat galgarri. Getari-ko erreketan bertako artxiboa ere zearo erre zan. JZenbat dokumentu ote zeuden bertan gordeta!

Bai. Joandaneko mendetan Getari-ko erria zerbat izan zan. JZorigaitzoko gerrak!

Aita Pio Sagües Azcona-ren meritu benetan aundia auxe izan da. Inork ezer etzekien Martin de Guetaria obispoaren bizitz-kondaira berritzea. JNundik atera di-tu zeatasun ote?

Naparru erreinuko artxibuetatik gelyenbat, edo asko beintzat. Naparruko artxiboa mea-zulo arrigarria bait-da. Martin de Guetaria prantziskotarra genduan. JNolz jaio zan Getari-ko errian? Urtea ez dakigu baño ama-laru-garren menpean. Eriotza urtea bai, zeatasun au agertzen da. 1449-garrenean.

Paris-en estudioak egindako gizona. Naparruko prantziskotarren buru izandakoa. Naparruko erregeari ser-bizio aundiak egin zizkion Martin de Guetaria-k. Prantziko Lectoure deritzan ziuadako gotzai izatera iritzi zan. Baita obispo bezela Basilea-ko konzilioan interbentzio bereziak izan.

Sakonki aitzertzen ditue ogek danak Aita Pio Sagües Azcona istorizaleak. Baita ezagutzen etzan beste keta-

riar ospetsu baten susmoa atera ere. Fray Juan de Guetaria, amabost-garren mendekoa.

Bañan jarral dezalogun Martin de Guetaria gotzaiarekin. Naparruko errege ospetsu izandako Karlos Iru-garrenakin oso bat egiñik agertzen zaigu ketariar gotzai aundia.

Gipuzkoar bat Naparruko erregearekin orrenbeste-raño bat eginda ikustek poz aundia ematen digu gaur eguneko gipuzkoarri.

Meritu aundiko gizona zan noski Martin de Guetaria. Parisera estudiota joteko diruak Naparruko errege- bizioko gizon da gutxi. Onela bidali zuan Konstanza-ra Naparruko artxiboen zeatasun guziazkin.

Baita ere erregearen kontura joan zan Alemanira, kontziliohara, gure ketariarra. Eta ez nolani, baizik ser-bizioko gizon da gutxi. Onela bidali zuan Konstanza-ra Naparruko erregeak.

Eta ez au bakarrik. Baita Lectoure erriko obispo egin-erazi ere, eta Aita Santuak nomenclamtu au ontzat artu zezala kontsegitu.

Gizon jakintsu, teologari sakon eta itzilarri oso bi-kaña zan Martin de Guetaria pamatua. Dirudienez Iru-ñan il zan len esandako urtean.

Saso artan ere ba ziran kontuak, bañan gure ketari-arrak, jator, zuzen, zorrotz, gizonki jokatu zuan beti. Etzan bi arpegioko gizona.

Ezkerak Aita Pio Sagües Azcona iztori-zaleari, gi-puzkoar ez-ezagun eta benetan itzal aundiko gizon ba-ten zeatasunak ain argi azaldu dizkigularo.

Jose de Arteche

EUSKERA TA KOLEJIOAK

ZERUKO ARGIA-n irakurri dot J. Batiz jaunak nire aurreko lan bate-ri erantzuten dautsana. Gaia, euske- ra ta kolejioak dira, ta inportantea dan ezkerro, beharrezkoa da erabi- lte.

Euskerak, azken urteotan, atzera egin dau.

Ikusten doguz eskuldun familia- to umeak, haurrak, erderaz hitz egi- ten. Eskuldun gurasoak, euren artean erderaz egi ten. Bardin, neskek euran artean. Zergatik egi- ten dabn galdutuen jakenian, hau erantzuten daukue:

Batzuek: Zertarako balio dau eus- kerak? galdetuz.

Beste batzuek: erretzasun gehi- go daukagu erderaz, batez be al- kar hizketa sankotxu ban egin be- har danean.

Baina, ikusi...

Exte bat erretan dagonean, sua ta kea dagoz. Bomberoak deitzen da, ta orduan, su hiltzaleak datozean, ura botetan hasten dira. Baina no- ra botetan dabe ura? Ez keari, al- perrikakoa litzakelako. suari bot- tan deutse ura.

Eurek, bomberoak, ba dakie su- atik datorrela kea, ta sua amatur ez- kero, kea beez, gehiago barik, be- zere joango dala.

Nire ustez, euskerarekin bardin da.

«Zertarako balio dau euskerak? galdetutea ta «erderaz erretzasun gehiago daukagu» esatea, kea di- ra.

Zein da, be sua? Erantzuna: esko- lak, kolejioak, ikastolak.

Euskaldun gehienak analfabetoak dira. Esan nahi dot, euskeran anal-

fabetoak. Ez dakie euskeraz ez irakurten ez idazten. Ez dabe euskal gramatikarik ikasi, ez dabe ez ezin- go dabe inoiz euskal aldzikari edo liburirik irakurri. Euskeraz ez dau- ka eurentzat balio handirik, euskal- kulturako ateak itxia daukazalako. Eta hortik dator euskerarako erret- zasunik ez eukitea.

Euren ikaskizun guztiak, erderaz egin dabez. Aldzikari ta liburuak, er- deraz irakurten dabez. Eurentzat eusker a, edo idiakaz edo hir u urte- duan umeak hitz egiteko baino gauza ez da. Hortik kanpora, ez dauke gure hizkuntzan erretzasunik.

Holan ba, euskeraren problema zuzendu nahi badugu, sustraira jo behar dogu: eskoletara, kolejioeta- ra.

Euskal ikastolak sortu baino le- hen, gure seme-alabak eskola ta ko- lejioetara bialdu izan doguz. Lehen-engoak, ofizialak. Bigarrenak, prai- le ta monjerrenak. Eta, tamalez, biak egon dira euskerari itxita.

Eskola ofizialetan eusker a sartze- ko, lan egin da. Eta azken urteotan egin dana aipatuteagaitik, hor dau- kagu orain hir u urte Euskaltzain- diak Madrid-eko Ministerio-ara bial- dutako eskaria, Euskerazaleak eska- ri bardina eginaz bialdutako 50.000 firmak, eta Txistularien Elkarteak bere 3.100 bazkideen izenean bialdu- takoa. Honen ondorena: Liburu Zuria, ta bilinguismoaren posibili- dadea.

Baina orain, kolejioak gertatzen ja- kuz.

Kolejioetako praila ta monjak, ge- hienak, eskuldunak dira. Eta zer-

gaitik euki dabez euren kolejioak euskerari itxita?

Egia da guraso batzuek orain ez dabela nahi euren semeak euskeraz ikasi dagien. Baina zergaitik da hau? Lehenago eurrei, gurasoai, kolejio- etan euskeraren balioa erakutsi ez deutselako. Okerra, lehendik dator, eta zuzentzeko, ez da bigunkeriatan ibili behar. Nire beste lan baten esan nibe legez, lehen euskera DERRIGORREZ ikastetxetatik debe- katu zan moduan, gaur DERRIGO- RREZ sartu behar da. Edo derrigo- rrez ez bada, bentajia handiak emo- ten euskeraz ikasiko dabn umeai, lehen egindako okerra zuzentzeko.

Eta orain, begiratu daigun aurre- ra.

Nik, Itxaropenez beterik ikusten dot euskeraren etorkizuna.

Zorionez, guraso asko gagoz gure seme-alabai euskeraz egi ten deutse- guzako. Zorionez, euskal ikastolak dagoz. Eta hemen dago euskeraren etorrera.

Laster, Liburu Zuria eskeinitako bilinguismoa martxan ipiniko da. Ze- lan erantzun dabe eskola ofizi- liak eta praila ta monjen kolejioak?

Lehenengoak, kanpoko maisu as- ko dauke eta nekeza izango jake bilinguismoa aurrera eroatea. Jaka- rrenak, praila ta monjenak, euskal- dun asko dauke euren artean, bai- na orain arteko jokabidea ikusita... hum! Itxaropena daukat banaka batuetan. Baina besteetan, gehiene- tan... Geroak esango dauku (laster etorriko dan gero batek), zelan jokatuko dabn.

Baina hor, bai, euskal ikastoletan itxaropen betea, oso daukat. Hor- rei lagundu behar deutsegu gogor, gure diru gutziarekin, gure seme- alabak eurekana bialduaz. Horren jokabidea ba dakigu zelakoa dan, eta euren lanan osorik sinisten do- gu.

GURE euskal ikastolak (eta eurai deitu daikeguz GURE, besteai baino hobe), difnot gure euskal ikastolak 50.000 ume daukezanean, 14 urte- rari ban lanean, orduan euskera salbauta ikusiko dogu.

Eta hori lortuko dogu.

XABIER GEREÑO

Naparro'ko euskera usteltzen

Bertze urtetan bezela aurtan ere aukera izan dut udaldiko egun batzuk Iñar-Naparroan emateko. Naparro'ko alderdi guztiak xarmanatik badira, areago muga ondoko bazter ungarigarri euki. Emen oraindik ere eskura bi- zirik dugu. Noiz arte?

Amayur'en bizi naiz. Errixka ontan geienak euskeraz mintzatzen dira. Alare ume ta gazteen artean erdara nagusitzen ari da.

Aritzurien ezagun aumtz dituz. Arizkun eskuara erabat galtzeko zo- rian dagoela esan ditek. Batzuk ango apez bati galera orren erru pixka bat botatzen zioten. Relata refero.

Zugarramurdi'n obeki gordetzen dute beren mintzoa. Sorgin eta la- mieri, bizi diran aitzuloak ikusterakoan, au eskatu nien biezteaz: gau illu- netan gizakumen odola xurgatuko badute ere, ango erriarri eta dezaio- teta antziñako mintzoa ebatsi.

Erazura ia egunero joatan naiz palaz aritzera. Mutikoak aski mintza- zen dira eskuaraz. Baña neskatoak guti. Barkatu, Baztan'go neska jator eta lirainak: beti iruidu zait personalidade oso exkaxa duzutela. Ahalke- tu egiten zerate euskeraz mintzatzen!

Elizondo'n Erdialdearen gaudela ematen du. Ez Bilbo'n tamañean, ba- ña alare Erdalerra dirudi Euskalerra baño.

Dantzarineta ta Izpegi'ri ere kumplimentuzko bixita egin diet. Izpegi' ko muga Errazu'ko bi mutikoekin luzaro solasean aritu nintzan. Eta irurok ados giñan. Naparro'ko eskuara, Euskalerriko bertze probintziatan bezela eskolak ondatzen dutela. Zenbat eta zenbatek esan didate: «Esko- lara gan arteo, ni euskeraz bakarrik mintzatzen nintzan. Baña gerotzik...»

Eskolak ondatu digute Euskalerra; eskolak egin digute Erdalerra. Gizaeskubide jatorritzako zapalduz erdara berabatu digute. Berriz ere erran dezagun bildurrik gabe. Gurasoak soilki erabaki behar dute, beren umeak zeon ikuntzetan ikasi behar duten. Gurasoen kontra datozten le- geak ez dira zuzenak eta ezin ditugu onartu. Tamala da esan beharra: Euskalerrian izkuntz-kolonizazioan bizi gera.

Zeruko Argia

Zuzendaria:

ANTONIO ITURRIA ASTIAZARAN

Naparroko-Kantauriko ta Ara goiko Kaputxinoak argitaratue (Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA:n:

Oquendo, 22: Telf 26666

ARPIDE SARIA:

Urtekoa	190 Pta
Azterrian	265 Pta

Aldetz artu nai bada, galdetu.